

Interes orokorreko antolamenduak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2018ko apirilaren 2tik 7rako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

2018/04/03 Bizkaiko Aldizkari Ofiziala

- Erabakia Lan eta Justizia Saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Bizkaiko lurralde ordezkararena. Honen bidez ebazten da Bizkaiko Eraikuntza sektoreko hitzarmen kolektiboaren indarraldiaren luzapena erregistratu, gordailu egin eta argitaratzea (hitzarmen kodea 48000715011981). **2 or.**

2018/04/04 Estatuko Aldizkari Ofiziala

- Ebazpena, 2018ko martxoaren 21ekoa, Enplegu Zuzendaritza Nagusiarena; haren bidez, zuzendu egiten dira dokumentu honetako akatsak: 2018ko otsailaren 16ko ebazpena, arroza egiteko industrientzako estatuko hitzarmen kolektiboko 2017ko behin betiko soldata-taulak eta 2018ko behin-behinekoak erregistratzen eta argitaratzen dituenak. **4606 xedapena – 3 or.**
- Ebazpena, 2018ko martxoaren 21ekoa, Enplegu Zuzendaritza Nagusiarena, higiezin kudeaketako eta bitartekaritzako enpresen hitzarmen kolektiboko 2017ko soldata-taulak erregistratzen eta argitaratzen dituenak. **4609 xedapena - 5 or.**
- Ebazpena, 2018ko martxoaren 21ekoa, Enplegu Zuzendaritza Nagusiarena, aseguru- eta berraseguru-erakundeen eta Gizarte Segurantzaren mutua kolaboratzaileen sektorerako estatuko hitzarmen kolektibo orokorreko 2017ko eta 2018ko soldata-taulak erregistratzen eta argitaratzen dituenak. **4610 xedapena - 4 or.**

2018/04/06 Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala

- Arabako eraikinen eta lokalen garbiketaren sektorearentzako hitzarmen kolektiboa. **1185 xedapena – 25 or.**

II.- ANTOLAMENDU ARAUEMAILEAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2018/04/02

- **OGASUN ETA FUNTZIO PUBLIKOKO MINISTERIOA. - Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga.** - HFP/335/2018 Agindua, martxoaren 28koa; haren bidez, murriztu egiten dira, 2017ko ekitaldirako, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren estimazio objektiboa egiteko metodoan aplikatu beharreko errendimendu garbiaren indizeak, ezohiko zenbait inguruabarren eraginpeko nekazaritza eta abeltzaintzako jardueretarako. **4479 xedapena – 29 or.**

- **HEZKUNTZA, KULTURA ETA KIROL MINISTERIOA. - Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza. Batxilergoa.** - Ebazpena, 2018ko martxoaren 23koa, Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Unibertsitateetako Estatu Idazkaritzarena; haren bidez, jarraibideak ezartzen dira azken nota kalkulatzeko, Batxilergoko 1. maila baliozkotzeko agirietarako eta Espainiako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko graduaren baliokideak diren atzerriko tituluen homologaziorako. 4480 xedapena – 67 or.
- **EKONOMIA, INDUSTRIA ETA LEHIAKORTASUN MINISTERIOA. - Nazioarteko merkataritza-feriak.** - Ebazpena, 2018ko martxoaren 15ekoa, Merkataritzako Estatu Idazkaritzarena; haren bidez, zuzendu egiten dira dokumentu honetako akatsak: 2017ko abenduaren 18ko ebazpena, 2018. urteko nazioarteko merkataritza-ferien egutegia onartzeko dena. 4546 xedapena - 1 or.

2018/04/03

- **OGASUN ETA FUNTZIO PUBLIKOKO MINISTERIOA. - Segurtasun Eskema Nazionala.** - Ebazpena, 2018ko martxoaren 27koa, Funtzio Publikoko Estatu Idazkaritzarena, informazio-sistemetak segurtasun-ikuskaritzaren segurtasuneko jarraibide teknikoa onartzeko dena. 4573 xedapena - 5 or.

2018/04/07

- **ENERGIA, TURISMO ETA AGENDA DIGITALEKO MINISTERIOA.**
 - **Energia elektrikoa.** – ETU/360/2018 Agindua, apirilaren 6koa, 2018ko lehen seihileko naturalari dagozkion eragiketa-ordainketa balioak ezartzen dituen, eta instalazio tipo bat onartzen duena eta energia elektrikoa iturri berriztagarrien, kogenerazio-iturrien eta hondakinen bidez ekoizten duten zenbait instalaziori dagozkion ordainketa-parametroak ezartzen dituen. 4749 xedapena - 32 or.
 - **Energia elektrikoa.** – ETU/361/2018 Agindua, apirilaren 6koa, ETU/943/2017 Aginduaren I. eranskinean aurreikusitako gizarte-bonuaren eskaera-formularioak aldatzen dituen –ETU/943/2017 Agindua, urriaren 6koa, urriaren 6ko 897/2017 Errege Dekretua garatzen duena; errege-dekretu horrek kontsumitzaile kalteberak zein diren, gizarte-bonua eta energia elektrikoaren etxeko kontsumitzaileentzako beste babes-neurri batzuk arautzen ditu-. 4750 xedapena – 14 or.
 - **Elektrizitatearen sektorea.** - ETU/362/2018 Agindua, apirilaren 6koa, urriaren 31ko IET/2013/2013 Agindua aldatzen duena –etete-eskaeraren kudeaketa-zerbitzua esleitzeko lehia mekanismoa erregulatzen duena-. 4751 xedapena – 3 or.
- **LEHENDAKARITZAKO ETA LURRALDE ADMINISTRAZIOETARAKO MINISTERIOA. – Antolaketa.** - 192/2018 Errege Dekretua, apirilaren 6koa, Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzaren Estatu Organismoa Organismo Autonomoaren estatutuak onartzen dituen. 4753 xedapena - 26 or.

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2018/04/03

- **OSASUN SAILA.** - **HUTS-ZUZENKETA**, honako agindu honena: Agindua 2018ko urtarrilaren 12koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena eta Osasuneko sailburuarena, A kategoriako arrautza ez industrialetarako baldintza higienikoak eta sanitarioak egokitzeko arau tekniko zehatzak onartzen dituenak. **h1711 xedapena – 2 or.**

A.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala)

2018/04/08

- 5/2018 Foru Araua, martxoaren 14koa, zeinaren bidez berresten baita Zerga Administrazioako Estatu Agentziak, Nafarroako Zerga Ogasunak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Foru Aldundiek egindako lankidetzak hitzarmena, berehalako informazio hornidurarako errolda instrumental bat sortzeko dena. **1175 xedapena – 17 or.**

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2018/04/03

- Bizkaiko Foru Aldundiaren 37/2018 FORU DEKRETUA martxoaren 20koa. Honen bidez, zenbait aldaketa egiten dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Araudian eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko Erregelamenduan. **4 or.**
- Bizkaiko Foru Aldundiaren 38/2018 FORU DEKRETUA martxoaren 20koa. Honen bidez, Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-betebehar formalak araupetzen dituen Araudia eta Fakturazio-betebeharrei buruzko Araudia aldatzen dira. **4 or.**

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

E.B.A.O. (Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala): **Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala**

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: informacion.juridica@mutualia.es

.....

MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2
HENAO, 26 - 48009 BILBAO